

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

456/2025 Foru Agindua, irailaren 4koa. Interes publikokoa dela adieraztea Artziniegako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, zehazki, Artziniegako hornidura sarean dauden zuntz zementuzko hodiak berritzeko proiektua (2. fasea)

Artziniegako Udalak "Artziniegako hornidura sarean dauden zuntz zementuzko hodiak berritzea (2. fasea)" eraikuntza proiektua garatu du. Proiektu horren beharra justifikatzeko, adierazi du, alde batetik, ur ihesak eta matxurak maiz gertatzen direla, zati batzuetan instalazioak zaharrak direlako, eta, bestetik, hornidura gabeziak dituela, sekzioa nahikoa ez delako, gaur egun udalerriaren ipar-ekialdean dagoen banaketak (Barrataguren auzoa), batez ere industria lurzatiak, bizitegi auzoren bat eta familia bakarreko etxebizitzak dauden eremuan, eta, gainera, industria asentamenduak handitzea kaltetzen duela.

Hori 2. fasea izango litzateke, 1. fasea egiteko lanak 2021eko urrian amaitu baitziren. Bigarren fase horren jarduketa eremua A-2604 errepidearen trazadurarekiko paraleloan doan hornidura adar nagusi bati dagokio, A-624 eta A-2604 errepideen arteko bidegurutzaren inguruetatik Artziniegako herrigunetik 2,6 km-ra dagoen Avilogan hegazti haztegraino.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 euskal Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

2. faseko gaur egungo kanalizazioa zuntz zementuzkoa, burdina galbanizatuzkoa eta polietilenozkoa da, tartearen arabera, eta gabeziak ditu, ez bakarrik narriaduragatik, baita edukiera faltagatik ere, diametro txikikoa baita. Haren trazadura sare berrirako proposatutakoaren antzekoa bada ere, ezin da azalera guztian egin, gune askotan ez baititu betetzen errepide, ibai eta erreketako zortasun zerrendei buruzko araudiak.

Proiektu honen bidez, Artziniegako ur horniduraren sarea berritu nahi da, kalitatezko eta bizitza erabilgarri luzeko hoditeria berria ezarritik. Jarduketa hauek egingo dira:

- Zuntz zementuzko, burdina galbanizatuzko eta polietilenozko diametro txikiko hodia berritzea;
- Sarea erregulatze eta kontrolatzeko beharrezkoak diren elementuak instalatzea: kutxatila, balbulak, hustubideak, ur hartuneak, bentosak, etab.;
- 2. fasera harpidetutako herritar guztien hartuneak konpontzea eta hartuneak erregistratzeko kutxatila egitea, eta
- Obrek eragindako itxura hormak, zoladurak, lorategiak eta abar konpontzea.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, kanalizazioaren trazadura hiri lurzoru eta urbanizaezin gisa sailkatutako lurzorutik igaroko da. Lurzoru urbanizaezinari dagokionez, zeharkatzen dituen lurzatiak kategoria hauetan sartuta daude: nekazaritza nahiz abeltzaintzakoa eta landazabalekoa, balio estrategiko handia; nekazaritza nahiz abeltzaintzakoa, trantsizioko landa paisaia; basoak; basoa - mendi mehatza. Haietarako guztietarako, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak (LPS) onargarritzat jotzen du azpiegituren erabilera, zehazki lurpeko lineak, baina nekazaritza eta basozaintzako jardueraren gaineko eraginaren azterketa bat egin beharko da, bai eta neurri zuzentzaileen proposamen bat ere, nekazaritzako eragin sektoriala ebaluatze protokoloan jasotako baldintzetan.

Bestalde, Artziniegako udalerrian indarrean dauden plangintzako arau subsidiarioek, nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko kategorian sartutako lurzoru urbanizaezinei dagokienez (balio estrategiko handiko nekazaritza babeseko zona eta trantsizioko landa paisaiako zona), eraikuntzako erabilera eta jarduera baimendu gisa jasotzen dituzte onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak eta azpiegiturak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Ez dira egon behar plangintzako erregelamenduko 76.3.a) artikuluan jasotzen diren kasuen artean.
2. Ez dute ez higidurarik ez lurren kalitate galerarik eragin behar.
3. Ez dute isuririk sortu behar (edo dagokion arroaren organoaren baimena aurkeztu behar dute), edo zuzenean lotu behar dituzte estolderiaren sare orokorretara.
4. Ez dira akuiferoak babestearekin bateraezinak izan behar.

Basoen kategoriako lurzoruetarako ere berariaz jasota dago eraikuntzako erabilera eta jarduera baimenduak izango direla onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak eta azpiegiturak, egitura horietan aurreko 1 eta 2 zenbakietan aipatu diren baldintzak betetzen badira.

Beraz, Artziniegako Udalak sustatutako proiektua gauzatzeko, Arabako Foru Aldundiko hirigintza organoak interes publikokoak direla adierazi behar du aldez aurretik.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira."

Bat etorritik 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiguneguz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Bigarrena. Uztailaren 9ko 400/2025 Foru Aginduen bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 81. zenbakian egin zen, 2025eko uztailaren 18an. Horretarako emandako epean ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 86.2 artikulua jasotzen du etxeko ur hornidura toki erakundeentzat funtsezkotzat eta erreserbatutzat jotako zerbitzuetako bat dela; bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17. artikuluan ezartzen du udalerrien berezko eskumenen artean dagoela hiri erabilerako uraren ziklo integraleko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta arlo horretan sartzen da uraren behe hornidura.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikokoa dela adieraztea "Artziniegako hornidura sarean dauden zuntz zementuzko hodiak berritzea (2. fasea)" eraikuntza proiektua, udalerrri horretako lurzoru urbanizaezinean egitekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du udala salbuesten proiektua egitea onesten edo baimentzen duen erabakia hartzeko betebeharretik; erabaki horrek hirigintza lizentziaren baldintza eta ondorio berberak izango ditu, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 4a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA